

BALOREZKO PROPOSAMENA

1. Zer da Includify?

Gure enpresa **INCLUDIFY**, irisgarritasuna lantzen duen enpresa bat gara. Naturarekiko lotura, elkarlaneko ikaskuntza eta garapen jasangarria sustatuko dituen espazio inklusibo eta irisgarri bat eskaintzeko asmoz sortu zen, horrek pertsonengan eta ingurumenean positiboa izango da. Gure enpresan leku inklusibo batean landuko dugu hainbat jarduerekin osatuta. Ikaskuntza espazio naturalean tailerrak egingo ditugu. Erabiliko dugun espazioa lur eremu pribatu izango da, baita jarduera ezberdinetan basora joango gara gure antolaketaren arabera. Udaletxearekin tailerrak antolatu ditugu eta jarduera batzuk ditugu beraiekin, naturan espazio irekiak erabiltzea errazten diguna.

2. Zer behar edo arazo konpontzen dugu?

Gaur egungo gizarteak gaitasun desberdinak dituzten pertsonak modu oso eta ekitatiboan integratzen dituzten espazioen defizita du. Ingurune naturaletako jolas eta hezkuntza-jarduerak komunikazio zailtasunak edo desgaitasun fisikoak dituzten pertsonen behar espezifikoak kontuan hartu gabe diseinatu ohi dira, eta horrek esperientzia aberasgarri horietarako sarbidea mugatzen du.

Horri erantzunez, INCLUDIFY:

Espazio eta jarduera inklusiboak sortzen ditu: Pertsona Gorren, Gor Itsuen, autismoaren espektroko pertsonak edo beste komunikazio-behar batzuen beharretara egokitutako tailerrak eta dinamikak diseinatzen ditugu, Komunikazio Handigarriko eta Alternatiboko (KSHA) tresnak erabiliz, hala nola piktogramak, Zeinu Hizkuntza eta teknologia irisgarria.

Naturarekiko lotura sustatzen du: Ingurune naturalarekiko kontaktua sustatzen dugu, besteak beste, nekazaritza ekologikoaren, konpostajearen eta baratze

komunitario baten zaintzaren bidez, ingurumen kontzientzia eta ongizate pertsonala sortuz.

Gizarteratzea errazten du: Hainbat gaitasunetako haur, gazte eta helduek ingurune seguru eta abegitsuan elkarrekin elkarreragiteko, ikasteko eta gozatzeko espazio bat eskaintzen dugu.

3. Zerk egiten gaitu ezberdin?

1. Inklusio pertsonalizatua eta moldagarritasuna: INCLUDIFYn, jarduerak gure parte-hartzaileen beharretara egokitzeaz gain, egoeraren arabera dinamikak denbora errealean egokitzeak gai diren profesional espezializatuak ditugu. Ikuspegi horrek bermatzen du pertsona guztiek esperientzia positiboa izatea, beren gaitasunak edo mugak alde batera utzita.

2. Sarbide ekonomikoa: Gure proiektuaren oinarrietako bat irisgarritasun ekonomikoa da. Prezio lehiakorak eskaintzen ditugu, beste herrialde batzuetan ohi baino txikiagoak, antzeko ekimenetarako. Gainera, talde handien parte-hartzea eta menbresia-sistema sustatzen ditugu deskontu esanguratsuen bidez, inklusio eta partaidetza komunitario handiagoa sustatuz.

3. Berrikuntza jardueretan eta espazioetan: Gasteizen ez dago enpreesarik tailer inklusiboak eta ingurune naturaletako jarduerak konbinatzen dituenak, eskuragarri izateko diseinatuak. Gainera, udalarekin ditugun lankidetzek espazio ireki paregabeak aprobetxatzeko aukera ematen digute, naturarekin harremanetan esperientzia aberasgarria bermatuz.

4. Iraunkortasunarekiko konpromisoa: Gure proposamenak, pertsonengan ez ezik, ingurumenean ere eragin positiboa du. Gure tailer eta jarduera guztiak praktika jasagarrietan oinarritzen dira, hala nola birziklatutako materialen erabileran, kontsumo arduratsuaren sustapenean eta biodibertsitatearekiko errespetuan.

5. Membresia berritzailearen eredua: Gure erabiltzaileei bazkide bihurtzeko aukera eskaintzen diegu, urteko bonu baten bidez. Sistema horrek, hainbat jardueratan parte hartzea errazteaz gain, kide izatearen eta komunitatearen zentzua sustatzen du.

4. Bezeroek zergatik aukeratzen gaituzte?

Gure bezeroek merkatuan zerbitzu bakarra eskaintzen dugulako aukeratzen gaituzte, eta zerbitzu horretan inklusioa, irisgarritasuna eta jasangarritasuna dira funtsezko zutabeak. Familiek, elkarteek, enpresek eta ikastetxeek aliatu bat dute **INCLUDIFYn** garapen pertsonala, bizikidetza eta ingurune naturalarekiko lotura sustatzeko, modu inklusibo eta ekonomikoan.

INCLUDIFY aukeratzean, gure bezeroek honako hauek jasotzen dituzte:

- Haien beharretara egokitutako esperientzia aberasgarria eta esanguratsua.
- Ingurunean eragin positiboa duen eredu jasangarria.
- Prezio eskuragarriak eta malgutasuna taldeentzat.

Gure proposamenarekin, aisialdia gaintzen duen espazio bat eraikitzen dugu, inklusioaren, jasangarritasunaren eta lankidetzaren balioak partekatzen dituen komunitate bat sortuz. **INCLUDIFYk** egungo beharrei erantzuteaz gain, etorkizun bidezkoago eta errespetuzkoago baterako oinarriak ezarriko dituen eredu berritzailea ezartzen du.